



DONOSTIA, KLIMA-ALDAKETARI AURRE EGITEN DION HIRI EKOLOGIKOA

Nire ustetan, **klima-aldaketa** moteltzen lagundu behar dugu udal esparrutik. Horretarako, iraunkortasun-politikak sakonduko ditugu, herritarren sentsibilizazio-kanpainak programatuko ditugu Kristina Eneako hezkuntza-zentro honetatik eta energia berriztagarriak ekoizteko sistemak barneratuko ditugu. Betiere, emisioak gutxitzeko estrategia berritzaile baten barruan. Donostian atmosferara igortzen dugun CO₂ horretatik gutxienez 800 tona aurreztu nahi ditugu.

Neurrien dekalogo



1. **Eguzki-energia** fotovoltaikoko 5.000 plaka jarriko ditugu, 1. fasean 5 milioi euroko kostua izango duelarik. Kiroldegien estalkietan kokatuko ditugu, hala nola Mons, Etxadi-Aiete (proiektuan), Intxaurrenondo-Siustegi (proiektuan), Maria Cristina Hotela, ikastetxea, Tabakalera, CEME I eta beste batzuetan.



2. **Hiri-autobusak erabil daitezela sustatuko dugu**, eta horrez gain, ohiko erregaiak pixkanaka ordezkatzeko joango diren bioerregaiak erabiliko ditugu.



3. Garraio publikoko sistema desberdinen arteko **intermodalitatea** edo **interkonexioa** erraztuko dugu.

San Sebastián

Tu ciudad amiga

Donostia

Zure hiri laguna




4. Donostian 50 km-ko **bidegorriak** hedatu eta erabil daitezela sustatuko dugu. Oinezkoentzako zirkuituak hobetuko ditugu. Amara Ibaetarekin eta Unibertsitate Campusarekin lotzeko Morlanseko tuneletatik barrena doan bidegorriaren proiektua gauzatzea premia handikoa da.



5. Hirian ibilgailu pribatuaren erabilera murriztuko dugu Donostiarentzako **Mugikortasun Iraunkorraren Planaren** barruan.



6. **Zaborraren %50** birziklatzeko helburua erdietsiko dugu eta materia organikoaren gaikako bilketari ekingo diogu gero konposta egiteko.



7. Ulia, Igeldo eta Ametzagainako parkeen proiektuekin eta **zuhaitzak aldatzeko** proiektuekin jarraituko dugu (kasu honetan 3.600 zuhaitz aldatuko dira).



8. Kristina Enea Jauregian **Ingurumenaren Hezkuntza Zentroaren** jarduerak indartuko ditugu.

San Sebastián

Tu ciudad amiga

Donostia

Zure hiri laguna



9. Udalak sustatuko dituen eraikinetan energia berriztagarriak txerta daitezela sustatuko dugu, eta halaber, ekimen pribatuko beste eragiketa batzuetan. Eraikin berrietan **arkitektura bioklimatikoaren** ordenantza garatuko dugu.



10. CO₂ emisio-kopuru handiak dituzten **industriak kontrolatuko ditugu**, esaterako Cementos Rezola.

Donostian, 2007ko maiatzean